


## Covid19, alarma-egoera


Alarma-egoeran gaude berriro ere, eta horrek hainbat aldaketa eta lanketa berri ekari ditu ikastolara. Jarraian duzuen zirkularrean horri buruzko informazioa eta bete beharreko zenbait galdeketegi dituzue.

[Zirkularra](#).




## Gau beltza HH3

Urriaren 31n GAU BELTZA denez, HH3-ko espazioetan festa txiki bat ospatu dugu. Ikerlek batek kalabazak ekari ditu, eta horien inguruan pozik eta alai dantzan ibili gara!




## Baso-eskola HH5

Aurreko astean, HH 5eko lagunek Baso Eskola proiektua martxan jarri genuen. Ostiralean, Uliako Lore Baratzera joan ginen Xirimiri eta Zirimola taldeko lagunak. Bertan, xomorroak eta zapaburuak ikusten, hazia biltzen eta jolas sinbolikoan aritzu goiz ederra pasa genuen. Astearteean, aldiz, Ortzadar eta Tximista taldeko lagunak Zurriolako hondartzan altzorrak topatzen ibili ginen. Bertan topatutako materialarekin artelanak egin genituen, eta saltoka ere ibili ginen.




## LH3ko artistak oihanean

Pasa den astean, LH 3. mailako kideoak oihan arriskutsuetan murgildu ginen! Gustura aritu ginen material ezberdiniekin lanean, eta artelan ederrak egin genituen guztion artean.




## LH4ko goiz pasa

Aste honetan goizeko irteerak egin ditugu LH 4ko ikasleok. Talde bat Uliako lore Baratzetan izan da, beste bat Arrobitxulo parkean eta azkena Intxaurrondoko skatepark-ean. Eguraldia lagun izan dugula probestuz, jolasean aritu gara, eta txoko hauekin disfrutatzeko aukera izan dugu.




## Bullying-a ez da jolasa

DBH-leko ikastoleok Bullying-aren aurkako tailerrean parte hartzeko aukera izan dugu aste honetan. Ikusle izateaz gain, minutu gutxi batzuez gure aktore dohainak ere erakutsi ditugu. Bullying-a EZ DA JOLASA lelopean, jazarpen-egoeren aurrean nola jokatu landu dugu.




## Euskalaldia

Ikastolako Ariguneak aurkezten jarraituko dugu aste honetan ere, eta oraingoan, Hurako LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLE TALDEAREN eta BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLE TALDEAREN txanda da!



## Nafar Hegoaldeko ucta euskarari puzka

Aurten ere Errigora egitasmoan parte hartzen animatu nahi zaituztegu. Azaroaren 12a arte Errigoraren Nafar hegoaldeko ucta euskarari puzka kanpainan parte hartzeko aukera duzue, eta saskiak ikastolan jasotzeko aukera jarri dugu zuen eskura. [Zirkularra](#).



## OHARRAK / AGENDA:

- **Guraso Ordezkarien Bilera:** Azaroak 3. 17:15. Meet bidez egiteko esteka bidaliko da.
- **HH2tik GKAI2ra:** Etxeetako egoera teknologikoa. [Galdeategia](#).
- **BATX:** Azterketa garaian ikastolatik ateratzeko baimena. [Galdeategia](#).
- **Eusko Jaurlaritzako bekak (HH2tik GKAI2ra):** [Zirkularra](#).
- **2019an jaiotako senideen aurrematrikulazioa:** [Galdeategia](#).
- **Zerbitzuetako langileen lan-poltsa (zaintza, garraioa, garbiketa edo jangela):** [Galdeategia](#).
- **Jangela:** Azaroko [menua](#).

